

Tolosatik Donostiara. Juan Gorostidiren Oroimenez

Donostiako Orfeoiaren Mendeurrena dela-eta, Abestalde ospetsu honen Presidente jaunaren gonbidapenari atseginez erantzun ona eman nahian, honako lerro hauek idazteari ekin diot.

Tolosar bat Donostiako Orfeoiaz mintzatzea, batzuentzat harrigarria edo gutxienez bitxia gerta liteke, baina idatzi honen izenburuari erantzuten saiatuz, neure asmoari argibidea ematen diodalakoan nago.

Tolosan, neure adiskideen inguruan mugituz, musikaren mundutik hurbil bizi izan naiz eta batez ere Mokoroatarrekin harreman estuak izan ditut. Ez naiz hasiko hemen Eduardo Mokoroa Arbillaz hitz egiten, ni baino jantziagoek egin baitute hori; baina azpimarratu nahiko nuke, hala ere, gaur interesgarria iruditzen zaidan bere musika-arlo aberatseko pasartetxo bat.

Eduardo Mokoroa –esan dezadan bide batez Inazio semea izan zuela jarraitzaile musikari ospetsu gisa– Orfeón Tolosano izenekoaren sortzaile eta zuzendari izan zen abestalde horren bitzta osoan zehar (1901-1913).

Gaur historiaren parte den Tolosako Orfeoi hark ezagutu zuen zer zen Donostiako Orfeoiarekin lehian aritzea, baita hasu horietan harritzekoak ez diren gora-beherak bizi izan ere, adiskide maitea izan nuen Antonio Maria Labaienek idatzi zuenez:

Refiriéndonos a las pugnas hoy afortunadamente olvidadas entre los Orfeones Pamplonés, Donostiarra y Tolosano, en especial entre los dos últimos, hay que reconocer, como lo ha hecho con gran alteza de miras el actual y meritísimo director del Orfeón Donostiarra Juan Gorostidi, en un artículo necrológico dedicado a la memoria de Moco-roa, pues los directores de aquellos orfeones, o sea los maestros Esnaola, Múgica y Moco-roa, se mantuvieron en medio de aquellas luchas artísticas en actitud siempre digna y elevada, guardándose deferencias y cortesías personales, como correspondía a su categoría de caballeros y artistas. Antonio María Labayen: «Moco-roa, apóstol de la música» (*BRSBAP*. Año XV-1959-Cuad. 2", 143/1 43/1 59 orr.)

Eta Labaienek ondo adierazten duena baieztatu, inkaminka haiek gaindituz, E. Mokoroa, beste bereizpen askoren artean, Donostiako Orfeoiaren Ohorezko Presidente izendatu zuten (bereizpen bera ezagutu zuen Iruñeko Orfeoian eta Felipe Gorriti Eskolanian); Mokoroak, bere aldetik, bere musika-gintza emankorrean ez zuen ahaztuta utzi Donostiako Orfeoia eta *Txoriñua* izeneko pieza eskaini zion.

Horrela, bada, Eduardo Mokoroaren batuta gidari dudala, Donostiako Orfeoiaren alorrera heldu naiz, neure oroitzapenean Juan Gorostidi, abesalde horren goi-mailako zuzendaria izan zena agurtzera.

Juan Gorostidi, 1900. urtean Donostian jaioa, eta bertan hil 1968ko abuztuaren 14an.

Lehendik ere jakinak izan arren, jarraian eta hitz gutxitan, haren bizitzako zehaztapen batzuk aipatuko ditut, Donostiako orfeoia ardatz gisa harturik.

Txikitandik, hamar urterekin, Donostiako Orfeoiko haurren taldean sartu zen, eta Koruak han-hemenka egindako ibilera guztietan Gorostidi mutikoa han aurkitzen zen abeslari gaztetxo bezala.

1929.an, Sekundino Esnaola hiltzean, Gorostidik behin-behingo hartu zuen zuzendaritza, baina hiru urte geroago, 1932an, zuzendari izendatu zuten eta horrela jarraitu zuen 1968. urtera arte, hil zen arte hain zuzen ere. Bere seme-alabak, Juana Mari eta Manuel eta, suhia zuen Juan del Campo, ondoan zituen, baita anaiak zituen Jose eta Nikasio ere. Gaur egun Madalena del Campo Gorostidi, birloba, orfeoikidea da.

Juan Gorostidiren anaiak aipaturik gogoraraziko dut *Gaztelubide* Elkartea, Orfeoiaren eranskin bat izan dela eta horrek bizia eman diola Orfeoiari. Gaztelubideko txoko atoskorrean zuten musika-grina jarraitzeko toki aproposa Jose eta Nikasio Gorostidik, baita maisuaren adiskide maite eta orfeoikide zahar ziren Sotero Irazusta, Inazio Muñoz Baroja, Jose eta Nikolas Aldanondo eta abar luze batek ere.

Juan Gorostidi Orfeoirako bizi izan zen. Bere urteak eta Orfeoiarenak, beste inork ez bezala bateraturik bizi izan zituen. «Si Esnaola colocó al Orfeón Donostiarra entre los mejores, Gorostidi los situó entre los más sobresalientes de Europa» (*Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. "Orfeón Donostiarra". Auñamendi).

Denok bezala, Gorostidik izango zituen bere akatsak eta ez zuen bere ekintzetan, seguraski, beti zuzen asmatuko, baina berriz esango dut izen handiko maisu hau Orfeoiarentzat bizi izan zela, Koru honen bideak zabalduz, harako *eman ta zabal zazu* hura egia bihurtuz.

Ohore bat baino gehiago ezagutu zituen Juan Gorostidik –Donostiako plaza batek ere bere izena darama gaur egun–, baina Donostiako Orfeoiaren Mendeurren honetan, ez dut inolako zalantzarik zuzendari izan zuen hura

omentzea herriaren ezaugarri legezko eta bidezkoa dela. Bakoitzari berea Jainkoaren legea, dio esaera zahar batek.

Nik lerro hauen bidez bere oroimena berpiztuz egiten diot gorazarre Juan Gorostidi Garmendiari, Donostiak eta bere Orfeoiak hainbeste zor dion gizonari.



Tolostatik Donostiara Juan Gorostidiren Oroimenez / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Donostiako Orfeoia. Omenaldia 1897-1997*. - Donostia : Kutxa Gizarte eta Kultur Fundazioa = Fundación Social y Cultural Kutxa, 1997. - 80 p. + 2CD : il. ; 33 cm. - P. 50-51. - ISBN: 84-7173-308-3